BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIKO ZINEMA-EMANALDIETARAKO ANTONIO ELORZA BELODROMOAREN EGOKITZAPENA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

AURKIBIDEA

I.- Kontratuaren xedea

II.- 1. Atala

III.- 2. Atala

IV.- 3. Atala

V.- Materialen ezaugarri orokorrak

VI.- Zerbitzua emateari buruzko informazio osagarria

VII.- Kabinako planoa

VIII.- Belodromoko plano orokorra

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea honako hau da: Antonio Elorza Belodromoa Donostia Zinemaldiko zinema-emanaldietarako egokitzea, askotariko materiala alokatuz, garraiatuz, muntatuz eta desmuntatuz, eta beharrezkoa bada, material gehigarriak alokatuz eta garraiatuz.

Espazio honetan, goizeko eta arratsalde-gaueko proiekzio zinematografikoak egiten dira Zinemaldia egiten den egunetan. Horretarako, Zinemaldiak proiekzio-pantaila bat du, bai eta haren egitura ere, 26,80m x 12,60m neurriko trussez osatua.

Honako plegu honetan, egokitzapena egiteko behar den materiala eta eskaini beharreko zerbitzuak ageri dira.

Kontratuak materialak erabat jartzeko lan guztiak hartuko ditu barne; hau da, alokairua, garraioa, muntaketa, garbiketa eta desmuntaketa.

Lizitazio honetatik kanpo geratzen dira plegu honetan barne hartu ez diren materialak, eta esleipendunak ez diren hirugarrenei kontratatu ahal zaizkie, programatu nahi den ekintzaren ezaugarriek eta beharrek eskatzen badute.

II.- 1. ATALA

1.- Alokairua eta garraioa, zehaztutakoaren arabera

a) Kamera beltza egiteko 140 metro lineal truss, kamera beltza eta zinema-pantaila jasotzeko 17 motor (13 motor 500kg-koak, 4 motor 1.000kg-koak), kontrolagailu bat eta beharrezko kableak:

- TRUSSA:
  - Aluminiozko trussa, 300x300mm-ko lau angeluko ebakidurakoa, konexio azkarreko sistema batez osatua -torlojuen eta zirien bidezkoa-, aluminio estrusionatuz egina eta barne langetez hornitua, edozein motatako deformazioak edo egituren desplazamendua saihesteko.

- MOTORRA:
  - Motor jasotzailea, karga mugatzeko enbragez, korronte zuzeneko diskozko freno elektromagnetikoz, espeken bidezko mugaz, beheko edo goiko kako birakariz eta kate jasotzaile beltzez hornitua (T motakoa, 800N/mm^2, 5eko segurtasun koefizientea), gida-sistema eta poltsa barne.
  - Modu normalean edo alderantziz erabiltzeko aukera.

- KONTROLAGAILUA:
  - Kontrol zuzena, kako bakoitzaren maila indibidualki zuzentzen da.
  - Etengailuak 3 posizio (IGO-ITZALI-JAITSI) aukeratzea ahalbidetzen du, kanaleko (multzoko kontrola).
  - Larrialdiko geldialdi botoi normalizatua (botoi gorria, onddo formako burua du, aktibatuta izateko sakatu egin behar da eta desaktibatzeko biratu).
  - Martxan jartzeko botoia, larrialdietako “gizaki hila” funtzioa du.

Truss marko baten gainean motorren bidez proiekzio-pantaila altxatu eta muntatu/desmuntatzeko, eta motorrak altxatuz trussari lotutako kamera beltza egiteko iluntze-oihalekin aretoaren aforamendua muntatu/desmuntatu eta altxatzeko, lizitatzaileak motorrak maneiatzen espezializatutako teknikari bat sartuko du, bai muntatzeko/desmuntatzeko lanean, bai jarritako motorrekin lotuta sor daitekeen edozein arazori aurre egiteko.

b) 8 tutu metaliko, 3m-ko luzerakoak, soinua igotzeko.

- Altzairuzko tutua, beltz matez margotua, erdialdean 300 kg-ko karga kontzentratzeko ahalmenekoa (gutxienez).

c) 2 egitura, 2x2m-koak (3,20m-ko altuera) eta 1 egitura 4x2m-koa (3,20m-ko altuera), dagozkion zoruekin, pantailaren aurrean soinu-kaxak jartzeko.

- OROKORRA:
  - Plataforma modularra (2x2m, 2x1,33m, 2x0,66m edo antzekoa), modulazioaren arabera oinplanoaren edozein neurritara eta formatara egokitzeko modukoa.

- ARMADURA NAGUSIA:
  - Altzairu galbanizatuz egindako egitura, 0,60 eta 3,5m arteko edozein altueratan jartzeko modukoa eta euskarri teleskopikoz hornitua. Euskarri horiek lurreko irregulartasunetara edo desnibeletara egokitu behar dute, baita lurraren edozein ezaugarritara ere (lur naturala edo zoladuraduna).

- TAULAK:
  - Finlandiako geruza anitzeko egurrezko zorua, 15mm-ko lodierakoa, estaldura fenoliko irristagaitzekoa, suaren eta uraren kontrakoa. Taulak ezustean altxatzea eragozten duen segurtasun-gailu batez hornitutako habeak.

- KARGA-AHALMENA:
  - 750kg/m^2 -ko gainkarga onartua, 1,5eko segurtasun koefizientearekin.

- EUSTE-PUNTUAK:
  - Euste-puntuak habe etzanen, falken eta abarren gainean kokatuak, karga osoa modu uniformean banatzeko instalazioko zoladuran (Belodromoko peraltea, aire-kamera, atletismoko indoor pista…), baita maldan dagoen zoladuraren gainean kokatutako aipatutako euskarriak ez mugitzeko ere.

d) Egurrezko bastidoreak, pantailaren aforamendurako oihalak jartzeko.

- Egurrezko bastidoreak, beltz matez margotuak, neurrira eginak, aipatutako bastidoreetara lotutako oihal beltzak jarriz pantaila mugatzeko.
  - Kopurua eta neurriak (zabalera x altuera):
    - 1 unitate, 30x0,80m-koa, pantailaren behealdean.
    - 1 unitate, 30x0,70m-koa, pantailaren goialdean.
    - 2 unitate, 12x0,60m-koak, pantailaren alboetan.

e) Soinu-dorreen itxitura perimetrala, suaren aurkako ehun beltzekin. Kantitatea eta neurriak, gutxi gorabehera:
  - 2 unitate, 8 metro linealekoak, 3,20 metroko altueran.
  - 1 unitate, 16 metro linealekoa, 3,20 metroko altueran.

f) Atze-oihalak:

- Atze-oihal beltzak, pantaila mugatu eta kamera beltza sortzeko.
  - Kopurua eta neurriak (zabalera x altuera):
    - 1 unitate, 30x0,80m-koa, pantailaren behealdean.
    - 1 unitate, 30x0,70m-koa, pantailaren goialdean.

- 2 unitate, 12x0,60m-koak, pantailaren alboetan.

- Atze-oihal beltzak, goialdea ixteko, trussaren eta sabaiaren artean, Belodromoko estalduraren kurbadurari jarraituz.
  - Kopurua eta neurriak (zabalera x altuera):
    - 1 unitate, 40m-ko zabalerakoa eta 5-7m-ko altuerakoa.
    - 2 unitate, 55m-ko zabalerakoak eta 3-5m-ko altuerakoak.

- Atze-oihal beltzak, publikoaren eremuan hainbat baranda eta modulu estaltzeko.
  - Kopurua eta neurriak (zabalera x altuera):
    - 2 unitate, 20x1m-koak.

- ATZE-OIHALEN EZAUGARRIAK:
  - Mota: **Molton ehuna, %100 kotoiez egina, beltza, 300gm/m^2-koa.**
  - Finkatze-sistema: **Begiztak edo olana-zuloak, trussera lotzeko, zuzenean edo briden bitartez**.
  - Suarekiko erresistentziaren sailkapena: **M1 edo baliokidea**.

g) 12 polipasto, soinua igotzeko: Stagmaker edo antzekoa, 1.000kg-koa, 20m-ko kateduna (gutxi gorabeherako neurriak), soinu-kaxak zintzilikatzeko.

- EZAUGARRIAK:
  - Jasotzeko uztai bereizgailua eta engranaje murriztaileak mekanizatuta daude, jasotze-maniobrak egiten diren bitartean modu eraginkorragoan eta suabeagoan funtzionatu ahal izateko.
  - Jasotze-altuera estandarra: 10/15/20 metro (beste altuera batzuk eskuragarri, eskatuz gero). Manipulazio-katea jasotze-katea baino 50 zentimetro motzagoa da.
  - Jasotze-kate beltza, erresistentzia handikoa, altzairu aleaziozkoa, 80 kategoriakoa, akabera galbanizatukoa, korrosioaren kontrako erresistentzia izan dezan (EN 818 arauaren arabera, 4ko segurtasun-koefizientea).
  - Tresnaren diseinu trinkoari esker, gailu txiki eta pisu gutxikoa lor daiteke. Tresna hau egitura txikiak jasotzeko aplikazioetarako ezin hobea da (estandarteak, zutoihalak, eszenatokiaren goialdeko euskarri txikia, etab.).
  - Altzairuzko kapotak organo mekanikoak (jasotzeko uztai bereizgailua, engranajeak, etab.) sendo babestuta egongo direla bermatzen du. Margo beltza.
  - Goiko eta beheko kakoak, altzairu-aleaziozkoak, segurtasun-trinketez tratatuak.

2.- Materialen hornidura, zehaztutakoaren arabera

a) 400m^2 plastiko, pantailaren oihalaren azpian jartzeko, berau markoan muntatu/ desmuntatzen den bitartean, zikindu eta/edo hondatu ez dadin.

- EZAUGARRIAK:
  - Mota: **Polietileno gardenezko lamina**.
  - Galga: **200**.

b) Lotura-elementuak: Atze-oihalak lotu eta hala argi-zirrikituak saihesteko beharrezko elementu guztiak. Orientagarri gisa:

- 600 brida (kolorea eta neurria zehazteke).
- 4 bobina soka, 100 metrokoak (kolorea eta neurria zehazteke).
- 8 bobina paketatzeko zinta (kolorea zehazteke).

III.- 2. ATALA

Materialak alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, zehaztutakoaren arabera:

1.- Eszenatoki nagusia

a) Eszenatoki bat, aurkezpenetarako, Belodromoko peraltearen eta atletismoko pistaren artean muntatua, inklinazioa libratuz, 14x8m-koa.

- OROKORRA:
  - Eszenatoki modularra (2x2m, 2x1,33m, 2x0,66m edo antzekoa), modulazioaren arabera oinplanoaren edozein neurritara eta formatara egokitzeko modukoa.

- ARMADURA NAGUSIA:
  - Altzairu galbanizatuz egindako egitura, 0,60 eta 3,50m arteko edozein altueratan jartzeko modukoa eta euskarri teleskopikoz hornitua. Euskarri horiek lurreko irregulartasunetara edo desnibeletara egokitu behar dute, baita lurraren edozein ezaugarritara ere (lur naturala edo zoladuraduna).

- TAULAK:
  - Finlandiako geruza anitzeko egurrezko zorua, 15mm-ko lodierakoa, estaldura fenoliko irristagaitzekoa, suaren eta uraren kontrakoa. Taulak ezustean altxatzea eragozten duen segurtasun-gailu batez hornitutako habeak.

- KARGA-AHALMENA:
  - 750kg/m^2 -ko gainkarga onartua, 1,5eko segurtasun koefizientearekin.

- EUSTE-PUNTUAK:
  - Euste-puntuak habe etzanen, falken eta abarren gainean kokatuak, karga osoa modu uniformean banatzeko instalazioko zoladuran (Belodromoko peraltea, aire-kamera, atletismoko indoor pista…), baita maldan dagoen zoladuraren gainean kokatutako aipatutako euskarriak ez mugitzeko ere.

b) Arrapala bat peraltearen gainean, bomitorioko irteeratik eszenatokira sartzeko,, gutxi gorabehera 4x2,70m ingurukoa, suaren kontrako M3 moketaz eta hegal perimetralez hornitua.

- OROKORRA:
  - Egurrezko egitura, zoruz hornitua (egur tratatuzkoa, estaldura fenoliko irristagaitza erantsita), neurrira egina, sarbidea ematen duen irtengune zabalaren eta eszenatokiaren arteko espazioa horizontalki berdintzeko, azken horren kokalekuaren arabera.

- KARGA-AHALMENA:
  - 750kg/m^2 -ko gainkarga onartua, 1,5eko segurtasun koefizientearekin.

c) 1 plataforma, 1x4m-koa, peraltearen gainean instalatua, mugikortasun murriztua duten pertsonei sarbidea emateko arrapala batekin.

- OROKORRA:
  - Egurrezko egitura, zoruz hornitua (egur tratatuzkoa, estaldura fenoliko irristagaitza erantsita), neurrira egina, sarbidea ematen duen irtengune zabalaren eta plataformaren arteko espazioa horizontalki berdintzeko, azken horren kokalekuaren arabera.

- KARGA-AHALMENA:
  - 750kg/m^2 -ko gainkarga onartua, 1,5eko segurtasun koefizientearekin.

- EUSTE-PUNTUAK:
  - Euste-puntuak habe etzanen, falken eta abarren gainean kokatuak, karga osoa modu uniformean banatzeko instalazioko zoladuran (Belodromoko peraltea, aire-kamera, atletismoko indoor pista…), baita maldan dagoen zoladuraren gainean kokatutako aipatutako euskarriak ez mugitzeko ere.

2.- Kabina

a) 1 proiekzio-barruti.
   - Kabina itxia (aurreko horma, atzekoa, alboko hormak eta sabaia), gutxi gorabehera 5x4m-koa (2,5m-ko altuera), sarrerako atea sarrailaduna, aurreko hormek irekidurak behar dituzte, gidez hornituak proiekzioetarako kristalak jartzeko, eta sabaiak ere irekidurak behar ditu, aireztapen- eta erauzketa-hodietarako (irekidurak erabili beharreko proiekzio-makineria motaren araberakoak izango dira).
   - Multzoa kanpotik beltz matez margotuta egongo da.
   - Barneko argiztapenak etengailu bat izango du, pizteko/itzaltzeko.

3.- Moketa eta ehunak

a) 1.080m^2 moketa, suaren kontrakoa, M3, beltza: Kamera beltza osatzen duten atze-oihalek eta harmailek mugatutako eremuko zoru osoan instalatu beharreko moketa.

b) 120m^2 moketa, suaren kontrakoa, M3 (kolorea zehazteke): VIP eremuan eta intergune zabalera ateratzeko zoru osoan instalatu beharreko moketa.

c) 112m^2 moketa, suaren kontrakoa, M3, beltza: Eszenatoki nagusiaren azaleran instalatu beharreko moketa.
   - MOKETAREN EZAUGARRIAK:
     - Itxura: **Laua**.
     - Osagaiak: **%100 polipropileno-zuntza, latexezko aglomeratzailearekin**.
     - Pisua: **290 g/m^2**.
     - Suarekiko erresistentziaren sailkapena: **M2 edo baliokidea**.

d) 50 metro linealeko hegala: Eszenatoki nagusiaren kanpoko perimetroan instalatu beharreko hegala, altuera desberdinekoa, 0,50metrotik 1,50metrora.
   - HEGALAREN EZAUGARRIAK:
     - Itxura: **Laua**.
     - Osagaiak: **%100 polipropileno-zuntza, kalandratze bidezko soldatze termikoarekin**.
     - Propietateak: **Luzetarako eta zeharkako erresistentzia; urarekiko, lurrinarekiko eta airearekiko iragazkorra; azidoen, disolbagarri organikoen eta alkalinoen aurkakoa; antiestatikoa (karga elektrikoa ehunean neutralizatzen laguntzen du)**.
     - Pisua: **80 g/m^2** (g.g.b.).
     - Suarekiko erresistentziaren sailkapena: **M2 edo baliokidea**.

4.- Hainbat

a) Altzariak, VIP eremurako.
   - 8 butaka beltz/zuri (WASSILY motakoa, LC2 edo antzekoa) eta 4 mahai baxu beltz/zuri.

- 5 mahai tolesgarri, 200x90cm-koak, oihalezko mahai-tapiz bat azal gisa duela.
- 1 hozkailu eta 3 zutikako lanpara halogeno.
- 2 ispilu, gorputz osokoak.
- 1 esekitoki gurpildun eta 20 pertxa.

b) 6 sua itzaltzeko unitate, barrutian sakabanatuak, antolakuntzaren jarraibideen arabera.
- 5 ABC hautsezko itzalgailu, 50kg-koak.
- 1 CO_2 itzalgailu, 5kg-koa.

c) Muntaketa zuzenaren ziurtagiriak, teknikari eskudunak eginak.

Eszenatokia behar bezala muntatu izanaren ziurtagiria.

Pantaila eusteko sistema behar bezala muntatu izanaren ziurtagiria.

Kamera beltza ixteko truss eta motorren muntaia egokiaren ziurtagiria.

- Muntaketaren egokitasuna teknikari aditu batek bermatu behar du (jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1195 Legeko 15.2 art.: *"Instalazio finkoek ikus-entzule eta egileentzat bete behar izaten dituzten segurtasun-, garbitasun- eta erosotasun-baldintza berberak bete behar izango dituzte aldi baterako instalazio edo egiturek, eta hori teknikari adituak luzatutako egiaztagiri bidez egiaztatu beharko da espedientean behar bezala"*).

IV.- 3. ATALA

Aurreko puntuetan deskribatutako materialez gain, proiekzioen epe osoan, jarraian adieraziko dugun material gehigarria alokatzeko, garraiatzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko eskatu ahal izango da:

a) Eszenatokian aparteko handitzeak egiteko alokairua, garraioa, muntaketa eta desmuntaketa: Prezioa m^2-ko.

b) Eszenatokirako baranda alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, 0,60 eta 1m arteko altuerakoa (zehazteke): Metro linealeko prezioa.

c) Eszenatokirako beltzez estalitako baranda alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea (1. ataleko 3. puntuko oihalaren ezaugarri berberak), 0,60m y 1m arteko altuerakoa (zehazteke): Metro linealeko prezioa.

d) Eszenatokiaren gaineko oholtzei topea jartzeko egurrezko listoia alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea: Metro linealeko prezioa.

e) 2x1 oholtza modulagarriak, uztai modukoak edo antzekoak, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea: Unitateko prezioa.

f) Gurpildun esekitoki bat, asto motakoa, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, 30 pertxa barne: Unitateko prezioa.

g) Azoka-eremuetarako suaren kontrako M3 moketa alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea (kolorea zehazteke): Prezioa m^2-ko.

h) Oholtzen hutsuneak estaltzeko hegal beltzak, 0,40m eta 1m arteko altuerakoak, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea: Metro linealeko prezioa.

V.- MATERIALEN EZAUGARRI OROKORRAK

Plegu honetan adierazitako material guztiek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) ANTZINATASUNA: Ez dira onartuko 10 urte baino gehiago dituzten materialak.

b) ZIURTAGIRIAK: Lizitazio honen xede diren elementu guztiek dagozkien ziurtagiriak eduki beharko dituzte, ekoizleak, teknikari egiaztatuak eta/edo erakunde baimenduak emanak, eta Zinemaldiaren esku jarriko dira, hala eskatuz gero. Dokumentu horiek, funtsean, lehengaien ziurtagiriak, egituren ziurtagiriak, suaren kontrako erresistentziaren ziurtagiriak, etab. dira.

c) ARAUDIA: Aurretik adierazitako elementu guztiek, oro har, Eraikuntzako Kode Teknikoan islatutakoa bete beharko dute, eta bereziki, suaren kontrako erresistentziaren sailkapenaren inguruan jasotakoa.

VI.- ZERBITZUA EMATEARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

1.- Esleipendunak bere biltegian eskatutako materialeko elementu bakoitzetik %100 gehiago edukiko du, gutxienez.

2.- Arau orokor gisa, muntaketa Zinemaldiak adierazitako egun eta ordutegietan egingo da. Zinemaldiak ekoizpen-arduradun bat jarriko du eta berau inplikatutako hornitzaile guztien muntaketa eta desmuntaketa koordinatzeaz arduratuko da.

Alokairuaren epe osoa, muntaketa eta desmuntaketa barne, gutxi gorabehera 19 egunekoa izango da.


Muntaketa gutxi gorabehera Zinemaldia hasi aurreko 7 egun naturaletan egingo da eta gainerako hornitzaileekin koordinatu beharko da.

Desmuntaketa Zinemaldia bukatu ondoren hasiko da (igande goizaldean) eta gutxi gorabehera 2 egun iraungo du.


Bai muntaketa bai desmuntaketa laneguneta edo jaiegunetan egin ahal izango dira, baita gauez ere, lizitatzaileek eskainitako prezioa aldatu gabe.

3.- Materialek estetika eta garbitasun baldintza egokiak izan beharko dituzte.


4.- Ez da enpresa esleipendunaren eta besteren publizitaterik onartuko.



DETALLE SECCIÓN CABINA
Escala: 1/20



ALZADO CABINA
Escala: 1/20



DETALLE PLANTA CABINA VELODROMO
Escala: 1/20

PROYECTO DE PROYECCIÓN Y SONIDO

VELODROMO DE ANOTEA

FECHA	28-08-2019
DIBUJADO	Manuel Vilches
ESCALA	1/20

KELONIK S.A.

-PROYECCIÓN DUAL-
PLANTA, SECCIÓN Y ALZADO DETALLE DE CABINA

R-6

SUPERFICIE GRANO 2.....1428m2

SUPERFICIE GRANO 1.....419m2


SUPERFICIE GRANO 0.....230m2

SUPERFICIE GRANO 0.....200m2

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

SITUACION TATAMIS-PLANTA GRADA
VELODROMO A.ELORZA

Estado actual
Escala A3 1:500
ABRIL 2019



PLANTA VELODROMO
Escala: 1/200